

# ERREGEAREN ALABA ETA DRAGOIA

---

**O**rain dela hogeit hamar urte Aitzgorri mendian ba omen zen gaztelu bat. Han errege bat eta bere alaba bizi ziren. Egun batean erregeak neskatxa herriko ferira bidali zuen erosketak egitera. Baina neskatxa bidean galdu egin zen eta kobazulo batetara iritsi zen. Orduan dragoi bat ateratu zen eta neska harrapatu zuen. Dragoiak esan zion:

— Hemendik ateratu nahi baduzu hiru frogak bete beharko dituzu.

Neskatxak beldurturik honela esan zion:

— Ongi da. Betezko ditut hiru frogak horiek.

Orduan dragoiak gela estu eta itxi batetara eramatu zuen eta esan zion:

— Lehenengo frogak, sumendi barrura sartu eta urrezko hegoak ekarri behar dituzu.

Neskatxa beldurturik joan zen baina tanta bat erori ondoren, lore batek esan zion:

— Hartu balde bat eta bete urez; gero bota sumendira eta hegoak etorriko zaizu.

Neskek halaxe egin zuen eta dragoiak bigarren frogak betetzeko esan zion:

— Joan zaitez lakuaren sakonera eta ekarri ahatearen gorputza eta oinak.

Neskek lakurako bidean lehen aurkitutako lorea ikusi zuen eta esan zion lóreak:

— Errepikatu nik esaten ditudan hitz majiko hauek “Ahate oinak lotu ahate gorputzari, ahate gorputza edan ur guzti hori, ahate hegoak lotu ahate gorputzari”.

Gero, neska ahatearen gainean joan zen dragoiarengana baina hirugarren frogak bete aurretik ahateak dragoiari ura bota zion eta dragoia hil egin zen.

Hau gertatu ondoren, neska gaztelura joan zen eta oso pozik bizi izan ziren.

**AMAIA LEUNDA**  
**9 URTE**

